

KORONABIRUSA ATZOKO DATUAK

GIPUZKOAN		NAFARROAN	
365 positibo berri	2.402 hildako EAEn	129 positibo berri	824 hildako
31.225 positibo guztira*	139 UCIn EAEn	38.446 positibo guztira	50 UCIn Nafarroan
*HERNANIN 1.057, ASTIGARRAGAN 237			

Astindua Hernanik Eibarri, 90-19 irabazita

Landarera bueltatu da konpetizio ofiziala zortzi hilabete ondoren eta hernaniarrek garaipen eroso lortu dute eibartarren aurka. Ohorezko Maila eta Ohorezko B Mailan arteko aldea argi geratu da etxeko lehendabiziko partiduan.

HERNANI ERRUGBIA

Hernanik garaipen eroso lortu zuen Landaren, Eibarren aurka, 90-19 irabazi eta gero. Denboraldiko bigarren partidua jokatu zuten hernaniarrek, lehendabizikoa Landaren, eta etxera itzulera ezin hobeto joan zen. Bi taldeen artean abantaila haundia dago eta hori zelaian 80 minutuetan zehar ikusi zen. Zortzi hilabete pasa dira, etxean azken partidua ofiziala jokatu eta gero. Gainera, berezia izan zen partidua, zalerik ez baitzegoen harmailetan.

Girorik gabe, hernaniarrak serio jardun ziren partidua osoan zehar. Ohorezko B Maila eta Ohorezko Mailaren artean alde ikaragarria dagoela argi geratu zen lehenengo minutuetatik.

Bosgarren minuturako 12-0 ziren aurretik trikoloreak Beñat Arizeta eta Di Filipporen bi entseguarekin. Ez hori baka-

rrik, hemezortzi minutu bete zirenean, etxekoen bosgarren entsegu etorri zen eta markagailuak 33-0 erakusten zuen. Hirugarren, laugarren eta bosgarren entseguak Noriega, Imaz eta berriz ere Di Filippok lortu zituzten.

Eibarren minuturik onenak orduan etorri ziren eta atsedena dirira arte markagailuari eutsi zioten. Hernanik atsedena lortu zuten (Bidegaray eta Etxeberria), baina eibartarrek ere beste bi egin zituzten, 47-12ko emaitzarekin aldageletara itzuliz.

Bigarren zatian aldaketa asko eta 14 entsegu guztira

Bigarren zatian gauzak ez ziren asko aldatu. Hernaniarren nagusitasuna argia izan zen. lehenengo zatian zazpi entsegu lortu baziren, bigarrenengoan beste zazpi erantsi zizkion markagailuari. Guztira hamalau



Arizeta zuzenean entsegura bidean.

entsegu egin ziren. Bigarren zatikoak Arizetak, Bidegarayk eta Elosegik berriz ere puntuak egin zituzten, Aramendi gazteak eta Mijangosek bezelaxe.

Polidori entrenatzaileak bigarren zati honetan aldaketa ugari egiteko aukera izan zuen eta jokatzeko prest zeuden jokari denak aritu ziren zelaian. **K**

Andoni Ledesma apaiza Hernanin aurkeztuko da

HERNANI ELIZA

Gaur Andoni Ledesma apaiz erlijiosoa aurkeztua izango da Hernaniko parroki elkartean zerbitzurako apaiz-lankide bezala, hurrengo igandean Andoaingo parrokitan. 1991ean izan zen apaiztua Madrilgo Getafe elizbarrutian. Hurrengo urtean, Brasilerara destinatu zuten 17 urterako (Belém do Pará-n eta Xingú-n). Handik Perura 5 urtetarako. Azken 4 urte hauetan, berriz, Portugalen, Madrilén eta Cáceres-en eman ditu. Ez da noiznahi gertatzen den gauza. Herritar bat bere herriko apaiz zerbitzuan aurkitzea, jubilatua aurretik. «Sasoi onean dator eta urte askotan gure artean izango dugulakoan gaude. Ongi-etorri, Andoni!».

'Beldur Barik' sari banaketa, gaur

HERNANI BERTINTASUNA

Gaur, *Beldur Barik* lehiaketa orokorreko sari banaketaren jarraipena egingo da, 17:00etatik aurrera, Gaztelekuan streaming bidez. Hernaniko sariak aurrerago banatuko dira.

Go!azen-en 3garren nobela, kalean da

HERNANI KULTURA

Kalean da jada Go!azen-en hirugarren nobela. *Maddiren amona influencerra* du izenburu, eta saileko aurreko libururak bezala Alai Zubimendi ilustratzaile hernaniarrak egin ditu ilustrazioak. COVID-19ak eragindako itxialdiak harrapatu ditu Basakabiko gazteak ere, eta Maddik amonaren etxean geratu beharko du, gurasoak oporretan baitaude... Hernaniko Gaueko komiki dendan salgai daude liburuak eta nahi duen edonori aleak sinatuko dizkio Alai Zubimendik.

Urriza-Labakak eta Segurola-Barrenetxeak lortu dituzte Binakakoan lehenengo lau puntuak

Erraz irabazi dute bi bikote gorriek, 40-26 eta 40-30 Juanenea-Larrañaga eta Etxarri-Endika bikoteen aurka, hurrenez hurren.

HERNANI ERREMONTEA

Giro aldetik hotz, ikuslerik gabe, eta jokoan ere emozio haundirik gabe erabaki ziren atzo, Galarretan, Binakako Txapelketaren lehenengo partidua. Lehenengo partiduan Urriza eta Labakak erraz gainditu zituzten Juane-

nea eta Larrañaga, 40-26. Bigarrenengoan berriz, parekotasun pixkat gehiago egon zen, baina 40-30 irabazi zuten Segurola eta Barrenetxea IV.ak, Etxarri eta Endikaren aurka.

Ikuskizun gehiago espero zen lehenengo partiduan Juanenea eta Larrañagarengandik,

baina ez ziren izan aurkari go-gorak Urriza eta Labakarentzat.

Urriza jaun eta jabe izan zen eta 20 tantorekin partiduko erremontistarik onena izan zen. Hasieratik lortu zuten abantaila haundia 15ekoa ere izan zen momentu batzuetan.

Azkenean urdinak puntu negatiboa salbatzeko helburua guthienez lortu zuten. Honela garraileek lau puntu batu zituzten eta galtzaileak punturik gabe geratu ziren.

Barrenetxearen sakeak erabaki du partidua

Bigarrenengoan Barrenetxearen sakeak egin zuen zuloa lehenengo tantuetan eta abantaila horrek eman zien garaipena gorriek. 20-10 aurreratu ziren Segurola eta atzelari hernaniarra eta horietatik 10 sakez eginak zituen Barrenetxeak. 28-25era hurbildu ziren urdinak, baina azken tantoetan akats gehiegi egin zituzten. Galtzaileek ez zuten punturik batu. **K**

sulabe

Valella

okindegia

Nagusia 27
Astigarraga
943 33 24 10

MENDIKUZE
OKINDEGIA, S.L.

Troia Ibilbidea, 14 - Pab. 6 - Ergobia
20115 - ASTIGARRAGA

Tel 943 55 15 38
(J) 630 38 79 10
(S) 629 66 69 77

ISABEL

Janari denda

COVIRAN

Tomas Alba 11,
Astigarraga
943 55 23 67

URALDE K21
ITURGINTZA

50 URTEURRENA
1970 - 2020

ITURGINTZA
GASA
BEROKUNTZA
AIRE EGOKITUA
ZORU BERO EMALEAK
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
MANTENUA

Mañe y Flaquer, 5 behe 1 HERNANI - Tel 943 55 33 55 - uralde@uraldeiturgintza.com

50 urte bete ditugun honetan, bezero guztiei eskerrak eman nahi dizkizuegu, bide hau gure ondoan egiteagatik. Mila esker!

EGURALDIA
GAUR Eguraldia ez da askorik aldatuko, eguzkia nagusi; goizaldean hotz egingo du, zerotik gertu ibiiko da temperatura goizeko lehen orduetan, eta gainerako orduetan eguzkia izango da nagusi.
Min.4° / Max.16°

BIHAR Antizikloia gailenduko da gurean eta giro egonkorrekin jarraituko dugu. Aldaketaren bat aipatzekotan, mendebaldetik agertuko diren goi-lainoak izango lirateke.
Min.5° / Max.15°

ARGITARATZALEA
DOBERA
EUSKARA
ELKARTEA

LAGUNTZALEAK

Hernaniko Udala

Astigarragako Udala

Dobera
Auzo Udalak

GOZUETAKO UDALA

ARANOKO UDALA

TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTZAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622
AUTOBUSAK: **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korreoa Goizueta-Hernani:** 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **Tena** Nagusia, 16 (Astigarraga) **943 543718** **Gauetz:** **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** **Goizueta:** Nagusia 64 **948 514353**

Gipuzkoako Foru Aldundia

DOBERA
BAZKIDEAK /
KRONIKALARIAK



Aratz ikastetxean hamaiketako goxoa egin zuten ostiralean.

Andreka 21eko pintxoak, hasteko

HERNANI HEZKUNTZA

Ostiralean hasi ziren Aratz ikastetxeak hamaiketako goxoekin. Hasteko Andre Kale 21eko urdaiazpiko pintxoak jan dituzte, «mundialak zeuden eta Txus-ek mimo haundiarekin prestatau dizkigu. Hurrengo astean Errioguardan patata tortilak prestatuko dizkigute. Bizitzen ari garen egoera honetan, hau, bai ostalarientzat eta baita guretzat mesedegarria dela uste dugu. Laguntza xume bat izateaz gain animatzen gaituzten detailetxoak dira».

Maialen Lujanbioren 24 testuren irakurketa

Matrioxka, kale literaturaren ekimena, gaur 12:00etan Goiz Eguzkin egingo da Ginko bilobaren gerizpeko aulkietan.

HERNANI KULTURA

Matrioxka, kale literatura-ren ekimenaren kideak, gaur 12:00etan elkartuko dira Goiz Eguzkin Maialen Lujanbiok

idatzitako 24 testu irakurtzeko. «Bizi dugun egoera dela eta, irakurraldi ibiltaria izan behar zuena aulkietan eserita gauzatu dugu, Ginko bilobaren gerizpean» diote antolatzaileek.

Ekitaldi irekia izango da eta «gurekin irakurri, entzun eta gozatzea gonbidatu nahi ditugu Kronika irakurleak» diote Matrioxkako kideek.

Maialen Lujanbio bertsolari hernaniarrak idatzizko lan esanguratsuak egin ditu. **K**

Babes publikoko 15 eta babes publiko tasatuko 18 etxebizitza esleituiko dira

Eskabideak aurkezteko tasatuen kasuan abenduaren 4an amaituko da epea eta babes ofizialeko etxebizitzaren kasuan abenduaren 9an.

ASTIGARRAGA ETXEBIZITZA

Urumea-Berriko etxebizitzaren promozioan eraikitzen ari diren azken bi blokeetan babes publikoko 15 etxebizitza eta babes publiko tasatuko 18 etxebizitza egingo dira. Etxebizitza horiek 2022ko urte hasieran entregatuko dira. Horiez gain, Astigarragako Udalak 3 etxebizitza jasoko ditu jabetzan etorkizunean alokairu sozialera bideratu ahal izateko.

Babes publikoko 33 etxebizitza horiek esleitzeko prozesua zabalik dago eskabideak egiteko epea. Oinarriak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu dira eta hasi da eskabideak aurkezteko epea.

Eskabideak aurkezteko epea

egutegiko 15 egunekoa da, oinarriak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean zenbatzen hasita.

Babes publiko tasatuko 18 etxebizitzaren kasuan eskabideak aurkezteko azken eguna, abenduaren 4a, 14:00etan.

Babes publikoko 15 etxebizitzetan eskabideak aurkezteko azken eguna abenduaren 9a, 14:00etan.

Eskabideak Donostian, San Martin kalea, 47n, posta elektronikoz edo Udalean
Eskabideak Urumea Berriren bulegoan aurkeztu beharko dira (San Martin kalea 47, 20007 Donostia, Gipuzkoa); posta elektronikoaren bidez ere aurkez daitezke: vpoastigarraga@urumeaberri.com edo tasadasastigarraga@urumeaberri.com.

Lehentasuna astigartarrek
Parte hartzeko baldintza orokorrak honakoak dira, laburbilduta: Etxebizitzarik ez edukitzea. Aurreko bi urteetan beste etxebizitzarik ez izateko baldintza bete behar da.

Baldintza ekonomikoak: Babes Ofizialeko Etxebizitzaren kasuan, eskatzaileen diru sarrera haztatuak 12.000 euro eta 39.000 euro bitartekoak izan behar dute eta, tasatutako kasuan 25.000 euro eta 50.700 euro bitartekoak. Bestalde, lehentasun baldintzak ere finkatu dira, astigartarrek lehentasuna izan dezaten. **K**

Baldintza ekonomikoak: Babes Ofizialeko Etxebizitzaren kasuan, eskatzaileen diru sarrera haztatuak 12.000 euro eta 39.000 euro bitartekoak izan behar dute eta, tasatutako kasuan 25.000 euro eta 50.700 euro bitartekoak. Bestalde, lehentasun baldintzak ere finkatu dira, astigartarrek lehentasuna izan dezaten. **K**

JASOTA

Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA erakustea eta telefonoa. | Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira. | Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu. | Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak, edo itzultzeko garaian izan daitezkeen gaizki ulertuak. | Irainak, debaldeko salaketak eta difamazioak ez dira onartuko.

KORRIKA zurtz

Eskerrak zuek bezalako jendea dagoen!

Eskerrak egoera latz eta ilunenetan ere laguntzeko prest zaudeten guztioi.

Eskerrik asko euskararen lekukoa eskurik esku, ahoz aho, daramazuenoi.

Iritsi zaizkigu herritarren animoak, kezkak, laguntza eskaintzak KORRIKA zurtz gelditu

garen honetan. Benetan estimatzen dugu zuen eskuzabaltasuna.

2021ean KORRIKARIK ez dugu izango. Zorroak galaraziko digu kaleetan euskararen orroa. Hala ere, ezin geldituko gara lozorroan. Baditugu bestelako aukera batzuk belarriak prest eta ahoa bixi-bixi ibiltzeko. Herritar askori esker.

Gure hizkuntzak herritarrek behar ditu: korrika eta oinez doazenak; eta baita lurrean etzanda daudenak ere. Entzun, hitz egin, irakurri eta idatzi ez ezik, amets ere egin nahi dugulako euskaraz.

Juan Bautista Erauskin Mendizabal
Hernaniko AEKko irakasleak

Hernaniko bilkura telematikoki eta Astigarragakoa Udalean egingo dira

ASTIGARRAGA-HERNANI PLENOAK

Etzi, asteartean, Hernanin eta Astigarragan Plenoak egongo dira, 19:00etan hasita. Hernanin telematikoki egingo da eta Astigarragan berriz bertatik bertara egingo da udaletxeko areto nagusian. Astigarragan hamaika gai landuko dira eta 2021 urteko aurrekontuen hasierako onarpena eramango da Plenora. Arrobitxuloko igogailuaren exekuzio proiektuaz ere hitzegingo da eta Sahara eta euskeraren inguruko adierazpen instituzionalak egingo dira. Hernanin hamar puntu landuko dira. Hemen ere Sahararen inguruko mozioa aurkeztuko da, emakumearen aurkako indarkeria ezabatze alderdien adierazpena eta puntuetan Mercadonak eskatutako eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergan hobaria, interesa orokorra alegatuta, enplegua sustatzeagatik.

Sara Zozayaren saio linbikoa, 19:00etan

HERNANI LIBURUTEGIA

Azaroaren 27an, ostiralean, Biterin saio linbikoa antolatuta dago Sara Zozaya abeslariarekin. Egoera dela eta, ordua aldatu eta ordu-bete aurreratu da. 19:00etan izango da.

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

ESKERTZA

Ruth Martin Apecechea

Orain egun gutxi hil zen

- Goian bego -

Ruthen etxeko eta gainerako senitartekoez eskerrak eman nahi dizkizuegu egun latz hauetan adierazi diguzuen elkartasun eta maitasunarengatik.

ESKERRIK ASKO GUZTIAGATIK

Hernanin, 2020ko azaroaren 22an

OSTALARIEN TXOKOA

Egoki taberna. Behin behineko ordutegi berria. 7:30-16 eta 18:30-21. Menua astebukaera eta gauetan. Aukera zabala. **Deitu: 666 608 293**

IRAGARKI MERKEAK

Garraiolaria mudantza eta Garbigunera edozein traste eramateko eskaintzen da.

Deitu: 667 721 443 (Xabino)

Itigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**